

2017ko apirilaren 21a, ostirala

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

2034

143/2017 DEKRETUA, apirilaren 11koa, Bulego Judizial eta Fiskalaren Eraberritzeko zuzendaria izendatzeko dena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981, Legearen 18.j), 26.6 eta 29. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Lan eta Justiziako sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2017ko apirilaren 11n egindako bilkura proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.–María Amparo López Antelo andrea Bulego Judizial eta Fiskalaren Eraberritzeko zuzendari izendatzea.

2. artikulua.– Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrego egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko apirilaren 11n.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Lan eta Justiziako sailburua,
MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.